



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/02/11

BILERA ZENBAKIA: 7

ORDUA ETA LEKUA: 19etan Udaletxean

PARTEHARTZAILEAK: 5 parte hartzaile (3 emakume eta 2 gizonezko).

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1.-Kirol makinak ondo daude:

2.-Adinekoak : Gogoeta egin dugu gai honen inguruan. Ez da errez ikusten nola iritsi bakarrik bizi diren adinekoengana. Nagusilan elkartearen inguruko informazioa azaldu da eta beraiekin harremanetan jarraitzekotan gelditu gara, batez ere herri txikietan nola lan egiten duten jakiteko. Beste herri batzuetan egin diren esperientzia batzuk ere aipatu dira, Azpeitikoak adibidez. Jubilatuei ere galdetzea erabaki da. Eta azkenik partehartze prozesuan dauden herri txikien artean galdetzea ere egokitzen jotzen da.

Egokia ikusten da ere, herri mailan adinekoen inguruan sentsibilizazio ekimenen bat egitea. Cuidadores dokumentala edo Arrugas filma aipatzen dira.

3.-Lan poltsa : momentuz bi pertsona daude.

4.-Gizarte zerbitzuen inguruko informazioa : Herriko aldizkarian gizarte langilearen elkarrizketa bat egingo da, 2 orrialdekoa. Ondarruan egindako gida ere ikusi dugu.

5.-Etxe desjabetzeak : Udaleko webgunean gai honen inguruko informazioa jarriko da. Herriko ostatuan galdetu behar dira prezioak.

6.-Gure deialdietan E.S. kentzea eta M.O. mantetzea erabakitzen da

7.-Herriko zerbitzuen gida : martxoak 11rako proposamen bat aurkeztuko da.

Azkenik, hurrengo bilera, martxoaren 11an izango da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Herriko gida	Martxoak	M. E.
Ikerren elkarrizketa	Otsaila	I.U. eta E.M.
HURRENGO BILERA		